



Euskararen berri OLAtu gainean

2017ko ABENDUKO ETA 2018KO URTARRILEKO ALBISTEAK

Ebazpena, LANHITZ 2017 diru-laguntza deialdiarena

Eusko Jaurlaritzaren LANHITZ diru-laguntza deialdiaren ebazpena argitaratu da.

Euskararen erabilera soziala bultzatzeko diru laguntzak % 11,6 handitu ditu Foru Aldundiak

Euskararen erabilera soziala bultzatzeko diru laguntzen aurtengo deialdia onartu du Diputatuen Kontseiluak. 2,8 milioi euro pasatxo (2.880.998) bideratuko ditu Foru Aldundiak laguntza horietara, prestakuntza eta tokiko planak sostengatzera eta euskarazko hedabideak bultzatzera.

Oarsoaldera iritsi berrientzako, euskarara hurbiltzeko ikastaroa 5 euroan

Oarsoaldera iritsi berri direnei zuzendutako AISA programaren ikasturte honetako bigarren saioan izena eman daiteke.

"Euskaraldian" izena emateko epea ireki da, "11 egun euskaraz"

Euskalgintzak 2018rako daukan asmorik handienetakoa izango da Euskaraldia. "11 egun euskaraz" lelopean, euskararen aldeko mobilizazio eta sentsibilizazio erraldoia izan nahi du Euskaraldia, eta 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra burutuko da Euskal Herri osoan.

Euskara, emakumeen hizkuntza?

«Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz, gizonezkoek baino». Ondorio hori atera du Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabileraren azken neurketan. EHUko bi adituk argazkiaren ertzak arakatu dituzte: hizkuntzaren erabilera ere gizarte ereduaren sintoma bat dela argudiatu dute.

Euskararen Eguna, iruditan

Euskararen Eguna da abenduaren 3a. Donostiak hainbat euskara elkarte ditu auzotan barrena, eta horiek bultzatuta jarduera mordoa egin dituzte. Hona hemen jaso ditugun argazkiekin osatutako bilduma.

Jendaurrean euskara lehenesteko irizpideak adostu dituzte hainbat eragilek Gipuzkoan

Gipuzkoa Berdinago egitasmoaren ondorioak aurkeztu dituzte, eta hizkuntza irizpideak adostu.

Euskaraldia: Zabalik dago herrien izen-ematea

Zabalik dago herrien izen-ematea – Jatorrizkoa Euskaraldia ekimenaren webgunean topatuko duzu Euskaraldia, 11 egun euskaraz ekimenean parte hartzeko herrien izen-ematea zabalik dago. Urtarrilaren 23tik apirilak 8ra arte www.euskaraldia.eus webgunean.

“Euskara hemengo hizkuntza izanik, nola ez nuen ikasiko?”

Finlandiarrak dira Xila Pihlström eta Mika Marenk, baina aise moldatzen dira euskaraz. Finlandiaren independentziaren 100. urteurrenean hainbat jarduera antolatu dituzte.